

1.2 ART.: PRODUKTU LERROKATUAK.

1.- “Proiektuetarako diru-laguntza eskatzeko unean, ildo oso zehatz batzuk finkatzen dira produktuei dagokienez. Derrigorrezkoa da produktu horietan egotea” (Sailburuordetzak onartutako produktu-planekin bat etortzea)?”

Erantzuna: Bai, subentzionagarria izateko, Giza Baliabideek, edo hartzaile-produktuen garapen eta sustapenak/merkaturatzeak (1.2, 4.1.a.1, 4.1.a.2, 4.3 eta 4.4 artikulua) Marketing Planarekin lerrokatuak egon behar dute.

4.1 ART. Lankidetzaren Turistikoko Erakundea (LTE)

1.- Nola sortzen da lankidetzaren turistikoko erakunde bat (LTE)? Zein da jarraitu beharreko prozedura ofiziala? Zer dokumentu motak ziurtatzen du erakundearen sorrera?

Erantzuna: Ez dago “prozedura ofizialik”. Ezinbestekoa da Aginduan ezartzen diren baldintzak betetzea:

- “Erakunde Mahaiak” eta “Turismo Mahaiak” sortzea, eta “Azpisektore Mahaiak” sortzeko bidea hartzea (4.1.a.1).
- Produktu-planak garatzeko Basquetour agentziari atxikitze protokolo bat formalizatzea (4.1.b.1) (“Basquetour agentziaren Produktu Arloarekin Helmugak Atxikitze Protokoloa”)
- Jardunbide Egokietako programak garatzeko Basquetour agentziari atxikitze protokolo bat formalizatzea (4.2.a.3) (Basquetour agentziaren Lehiakortasun Arloarekin Helmugak Atxikitze Protokoloa”).

¹ “Urdin koloreko” formatua erabiltzen da 2011/V/31n Aginduaren aurkezpen-bileran hartzaileei hornitutako informazioa adierazteko.

Beltzez ondoko kontsultak jasotzen dira

2.- Lankidetza Turistikoko Erakundeak (LTE) laguntzak eskatu aurretik sortua egon behar du?

Erantzuna: Bai. Koadrila batek, edo LTE bat sor dezakeen edozein erakundek, LTE gisa eratzten ez bada, ez du Giza Baliabideetarako laguntzarik jasotzen; ezta 4.1.c.2 artikuluan (planak lantzeko laguntza) nahiz 4.1.c.3 artikuluan (ekipamendu informatikoak, intranet/extranet) jasotako kontzeptuetarako ere.

Hala ere, aurren abenduaren 31ra arte atzera daiteke Turismo Mahaiaren sorrera. (Lehen Xedapen Iragankorra)

4.1.A ART.: LANKIDETZA TURISTIKOKO ERAKUNDEETAKO LANGILEEN GASTUAK ETA KUDEAKETA EGITURAK

1.- a) Laguntzak eska nitzake helmugako kudeatzaile gisa nire soldata finantzatzeko, Lankidetza Turistikoko Erakunde ofizialki sortu aurretik edo sortu gabe? b) Erakunde eskatzaileko langilea izan daiteke? c) Helmuga (eskualdea) tartean dagoen prozesuetan helmugako kudeatzaileak emandako denbora diruz laguntzen da? d) Jardunbide Egokiak, irisgarritasuna, anfitrionak...?

Erantzuna: a) Ezinbestekoa da Lankidetza Turistikoko Erakunde gisa edo Kudeaketa Egitura gisa eratzea + Jardunbide Egokietarako protokoloa Basquetour-ekin + produktu-planak garatzeko protokoloa Basquetour-ekin (4.1.b.1). Hala ere, Basquetour-ekin protokoloak sinatzen diren eguna alde batera utzita, helmugako kudeatzailearen 2011ko gastu guztia egotzi daiteke

b) Bai, kudeatzailearen edo Aginduan esleitutako funtzioetarako langile propioen nomina subentzionagarria izango da.

c) Horren ildotik, helmugako kudeatzaileak gehienez 350 **ordu** egotzi ahal izango ditu **produktu-planak garatzeko. Arestian adierazitako eta 4.1.b.2 artikuluan jasotako gainerako funtzioetarako, eskatzaileak bidezko zat jotzen dituenak egotzi ahal izango ditu, baina kontuan hartuta bere jarduna deskribatu beharko duela eskabidean** (egin beharreko zereginen deskribapena, eta horiek egitera bideratuko dituen orduen kopurua, zereginen arabera banakatuak, eta, zehazki, Basquetour-ekin formalizatutako atxikitze protokoloan bildutakoak), **eta ondoren justifikatu.**

- Lehiakortasun-teknikariak urte osoko langileen gastuak egotzi ahal izango ditu, urtean zehar kudeatzen dituen eta Basquetour-ekin itundu dituen Jardunbide Egokietako taldeetakoak.

Hala ere, produktu-teknikariak gastuak egotzi ahal izango ditu, kontratazioaren hasieratik, eta 2011an, protokoloa sinatzen den egunaren ondoren betiere. 2012an, aldiz, urte osoa egotzi ahal izango da.

d) Ikus gainerako galderak

2.-Produktu-teknikaria: “(...) gure kasuan, produktu guztientzako 1.750 ordu esleitu zaizkigu guztira hitzarmen bidez (“lankidetzaren-protokoloa Basquetour-ekin”). Egotzi daitezkeen gastuak uztaitik aurrera bada, urteko guztizkoaren hainbanatutako zatiari buruz ari da?

Erantzuna: 1.750 orduak urtekoak dira. Hainbanaketa protokoloaren egunetik egin behar da, eta kontratazioaren eguna ere kontuan hartu behar da, betiere ondoren izan bada.

Kontuan izan behar da protokoloan jasotako guztizko ordu kopurua urteko ikuspegitik egiten dela. Horregatik, tarte hori laburtzeko langile kopurua handitzen bada, gerta daiteke Basquetour-ek ezarritako produktuaren garapen-planera ez egokitzea, eta, beraz, egozpen hori subentzionagarria ez izatea.

3.- Teknikari gehigarriek kudeaketaren barruan gauzatzen dituzten laguntza teknikoko zereginak turismo-bulegoaren berezko zereginekin uztar ditzakete? (nire ustez emandako denbora bakarrik, eta lehiakortasun-teknikariak zeregin horietan lanaldi oso bat osatzen ez badu, bere lanaldia turismo-bulegoan osatu ahal izango du).

Erantzuna: EZ (erantzun hau osatzen duten beste erantzun batzuk ikusi aurrerago)

4 .- “Lankidetzaren Turistikoko Erakundearen (LTE) eta Kudeaketa Egituren (KE) langileen gastu gisa izango lirarteke subentzionagarriak lan-kontratuak bakarrik?

Erantzuna: 5.6 eta 4.1 artikuluen arabera, erakunde eskatzailearen kudeaketa- eta langile-gastuak soilik LTE eta KEentzat izango dira subentzionagarriak, bai teknikari kudeatzailearen gastuetarako, bai teknikari gehigarrien gastuetarako, produktuak kudeatzeko, Esperientziak, Playgroundak eta Top Zirkuituak (EPZ) kudeatzeko, eta

lehiakortasuna (Jardunbide Egokien taldeak) kudeatzeko; lehiakortasunaren kudeaketarako azken langile-gastu horiek LTE eta KEentzat ez ezik, helmugetarako ere irekiak daude. Kasu guztietan ez dira bazter uzten langile-gastu jakin batzuk kontratu motaren arabera; eta, beraz, langile-gastu mota guztietara zabal daiteke, lan-kontratuetatik ondorioztatzen direnetara, baita administrazio-kontratuetatik ondorioztatzen direnetara ere.

Zehazki, LTE eta KEetako langileen kasuan, 4.1.c.1 artikulua subentzionagarritzat hartzen ditu honako gastu hauek: “4.1.b.2 artikuluan deskribatutako langileen [langile guztien] (...) kontratazio-gastuak” (hau da, teknikari kudeatzailearenak eta “langile gehigarrienak”). Ez du ezartzen kontratazioaren unearen baldintza, eta, beraz, duela bi urte kontratatutako turismo-elkarte bateko kudeatzaile baten nomina onartzen dugun modu berean, duela hainbat urte egindako kontratua ere onartzen da, administrazio-kontratua bada ere.

Halaber, 4.2.a.1 artikulua subentzionagarri gisa aipatzen ditu “langileen kontratazio-gastuak (...)”, eta, beraz, aurreko iruzkinak hemen ere aplikagarriak dira.

4.2.a.2 artikulua ideia berbera indartzen du, subentzionagarri gisa aipatzen dituen erakunde eskatzaileetako langile prestatu eta kualifikatuak, erakunde kontratugilearekin duten lan-harremanaren arabera bazter utzi gabe.

Hala ere, Agindu honen arabera subentzionagarriak diren administrazio- edo lan-kontratuen motak muga ditzakeen funtsezko irizpide bat dago: ez dute denek balio, DIRUZ LAGUNDUTAKO ETA AGINDUAN BILDUTAKO ZEREGINEKIKO DEDIKAZIOA ESKLUSIBOA DUTEN KONTRATUEK BALIO DUTE BAKARRIK (4.1.B.2). Hau da, Agindu honetan bildutakoen barruan sartu ezin zitezkeen beste zeregin eta funtzio batzuk biltzen dituen kontratuak ez luke balioko.

Hortaz, administrazio- edo lan-kontratu baten bidez lotutako langile propioen gastuak kontzeptu subentzionagarriak dira Erakundearen langile-gastu gisa, betiere LANGILE HORIEK AGINDUAN BILDUTAKO KUALIFIKAZIO ETA DEDIKAZIO BALDINTZETARA EGOKITZEN BADIRA

5.- Turismo Informazioko Bulego batek denbora partzialean kontratatutako langileak baditu, eta Udalak kontratua handitzen badie ETL kudeatzeko, subentzionagarriak izango lirateke?

Erantzuna: Kontratazio-gastuetarako diru-laguntza eskatze aldera, Udal batek udal gisa jarduten badu ezin izango du INOIZ laguntza eskatu

kontzeptu horrengatik, betiere 3 hiriburuetako turismo-sustapeneko erakundeak direnean izan ezik, Agindu honetan jasotako terminoetan. Langile-gastuetarako diru-laguntza eska dezaketen bakarrak Lankidetza Erakundeak eta Kudeaketa Egiturak dira, eta EZ udalak.

Hala ere, badago aukera udal batek edo nortasun juridiko propioa duen beste edozein erakundek LTE edo KE baten ordezkari eta solaskide papera bere gain hartzea, 4.1.a.2 artikuluan jasotakoaren arabera lankidetza-akordio baten bitartez. Kasu horretan, udalak LTE edo KE gisa jarduten badu nortasun juridiko propiorik GABE (LTE edo KE hori), LTE edo KE horren kontratazio-gastuak subentzionagarriak izango lirateke, betiere Aginduan eskatutako baldintzak betetzen baditu.

Zehazki, turismo-bulegoetako langileen gastuak **ez** dira subentzionagarriak beren jarduera publikoaren arretarekin uztartzen badute. Eta, aldiz, Aginduan bildutako funtzioak bakarrik egiteko kontratatzen badira, subentzionagarriak izan daitezke.

6.- 4.1.b.2 artikuluan adierazitako dedikazio eskusiboari buruzko iruzkina: artikuluko horretan dedikazio eskusiboa eskatzen da, kontratatutako denboran, baina horrek ez du alde batera uzten kontratazio partzial bat; asmoa da kontratatutako denbora edozein dela ere, denbora hori, diruz lagunduko dena, guztiz eta eskusiboki erabiltzea Aginduan adierazitako zereginak egiteko.

7.- Turismo Elkarte batek SICTED programari atxikitzeko protokolo bat sinatuko du, Basquetour-ek onartutako hainbat esperientzia ditu; zein baldintza bete behar ditugu langileen (zuzeneko) kontratazio-gastuetara sartzeko? Kontzeptu horretarako kudeatzailearen nominak balio du, marketing-garapeneko eta lehiakortasuneko planaren garapenean laguntzeko atxikitze-protokoloa sinatuta?

Erantzuna: 4.1 artikuluko gainerako baldintzak betetzea

Kudeatzailearen nominak diru-laguntza jasoko du 4.1 artikuluan ezartzen diren baldintza teknikoak eta dedikazio-baldintzak betetzen baditu (ikus beste erantzun batzuk)

4.1.A.1 ART.: ERAKUNDE MAHAIA.

1.- Erakunde Mahaiari buruzko erreferentziak, eskualdearen garapen iraunkorrerako sortutako sozietateen kasuan, eskualdeko alkate guztiek

eta sozietatearen kudeatzaileak osatutako egiturarekin (Administrazio Kontseilua, adibidez) bat etor daitezke?

Erantzuna: Bai: “Erakunde mahaiari” dagokionez, bere erantzukizunari dagozkion eginkizunak izateaz gain, eskualdeko turismo-garapenerako plan estrategikoa onesten duen erakundea dugu, baita “Turismo Mahaiaren” proposamenak onesten dituen ere. Erakunde Mahaia, erakunde bakoitzaren izaera juridikoaren eta antolamenduaren arabera, zuzendaritza-batzordearekin edo hura ordezkatzan duen organo eskudunarekin bat etor daiteke.”

4.1.A.1 ART.: TURISMO MAHAIA, KIDEAK.

1.- Gaur egun eskualdeko garapen-agentzia batean lankidetzahitzarmen bat dugu erakunde publiko eta pribatuarekin sinatua, baina Sailburuordetza ez da ohiko partaide gisa ageri, azken turismo-mahaiaren agertu zen arren. la hilean behin deitzen dugu turismo-mahaia, eta ez dakit iraunkorra izango zenik Sailburuordetzaren partaidetza bilera horietan guztietan. Bestalde, ez dakit lankidetzahitzarmena berri behar izango genukeenik Sailburuordetza barnean hartzeko.

Erantzuna: Nahitaez Sailburuordetzako pertsona batek izan behar du Turismo Mahaiaren ohiko kide (dagozkion lurraldeko turismo-koordinatzailea izango da, edo horren ordezkoa).

Sailburuordetza ordezkaturik egongo da Turismo Mahaietan, baina horretarako ez da hitzarmenik formalizatu behar.

2.- Esate baterako Mankomunitate bateko turismo-mahaiaren akta mahai horretako partaide guztiek sinatu behar dute?

Erantzuna: Organo kolektibo gisa bere funtzionamendua 30/1992 Legearen arabera arautzen da.

3.- Lankidetzaren Turistikoko Erakundeetan (LTE), eraketan erakunde pribatuak agertu behar dira, edo nahikoa izango litzateke Turismo Mahaietako sektore pribatuaren partaidetzarekin?

Erantzuna:

Aginduan adierazten da Lankidetzaren Erakundeak honela identifikatzen direla: “jarduten duten eskualdeko balio-kate turistikoari atxikitako eragile publiko eta pribatuak biltzen dituzten” erakundeak.

- LTEak nortasun juridiko propioa baldin badu, horren eraketan agertu beharko dira.

- LTEak nortasun juridiko propiorik ez baldin badu, kideek lankidetzadokumentu bat sinatu beharko dute, 4.1.a.2 artikuluan definitzen denaren arabera, eta, kasu horretan, **komenigarria da** ekimen pribatua sartzea horietan.

- Kasu guztietan derrigorrezkoa da turismo-sektoreko ordezkari pribatuen presentzia izatea Turismo Mahaietan. Aginduan honela definitzen da "Turismo Mahaia":

““Turismo Mahaia” honako ezaugarri hau duen partaidetza- eta lankidetzaz-organotzat hartzen da: bere jardun-esparruan turismo-garapen integralarekin lotutako proiektu eta ekimen zehatzen plangintzan, egikaritzapenean, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea eta lankidetzan aritzea. kontuan hartuz “Euskal Turismoaren Lehiakortasun eta Berrikuntza Planean” eta “Euskadiko Turismo Marketing Planean” xedatutakoarekin bat etorri beharko duela turismo-garapen horrek. Mahai hori ordezkari publikoek osatu beharko dute, eta horien artean, ezinbestean egon beharko du erakunde kudeatzailearen beraren eta “Sailburuordetzaren” ordezkari batek, baita turismo-sektoreko nahiz eskualdeko turismo-jardueran interesa eta lotura duten beste zenbait sektoretako hainbat ordezkari pribatuk ere.”

4.1.A.1 ART.: AZPISEKTORE MAHAIK

1.- “Azpisektore-mahaiak eskualdekoak izatearen nahitaezkotasuna” Tokikoak izan litezke?

Erantzuna: Ez, azpisektore-mahaiak Eskualdeko Lankidetzaz Erakundeetan txertatzen dira, eta “(...) eskualdeko turismo-azpisektore jakin bateko enpresak biltzen ditu organoa dugu, eta bi xede nagusi ditu, batetik, enpresek turismoari dagokionez helmugan ezarritako estrategiak ezagut ditzaten lortzea, eta bestetik, Turismo Mahaira hobekuntza-proposamenak eraman ditzaten. Eskualde batean Turismo Mahaietan ordezturiko turismo-azpisektore adina “Azpisektore Mahai” egon daitezke.”

2.- Turismoaren aldeko apustua egiten ari diren eta azpisektore-mahaiak ez dituzten eskualdeetan, oraindik oso identifikatuak ez daudenak, aurretik ez litzateke egin beharko sentsibilizazio-kanpaina bat? Eta sortzeko denbora eman?

Erantzuna: Ez dira nahitaezkoak 2011n: "(...) era berean, "Azpisektore Mahaiak" sortzeko joera ere izango dute".

4.1.A.1 ART.: Lankidetzaren Turistikoko Erakundeak eta PRODUKTUEN KUDEAKETA.

1.- "Lankidetzaren Erakundeak" "Euskadiko Turismo Marketing Planaren" identifikatutako eta 4.3.a.1 artikuluan bildutako lehentasunezko sektoreetako turismo-produktuetako bat (gutxienez) kudeatu beharko dute, edo bestela, Agindu honen 4.3.a.1.a artikuluan adierazitako Esperientzia, Playground edo Zirkuituetako bat."

"Kudeatzea" adierazten denean, noraino, produktua sektore pribatuak garatzen duela ulertzen badugu? Beste instantzia bat?

Erantzuna: Basquetour-ekin atxikitzeko protokoloan kasu bakoitzean jasotzen diren edukiak.

2.- "Esperientzia, playground eta gainerakoetan laguntzak soilik kudeaketa-erakundeentzat dira, edo enpresei ere diru-laguntza eman zaie, haiek balfira benetan kudeatzen dutenak?"

Erantzuna: ETEak ez dira ETL Agindu honen erakunde onuradunak. ETEek Turismoa Sustatzeko eta Merkaturatzeko (TSM) Aginduan eska dezakete laguntza.

Euskadiko Turismo Marketing Planaren lehentasunekin lerrokatutako turismo-produktuak kontzeptualizatu, diseinatu eta martxan jartzeko Euskadiko turismo-enpresentzako diru-laguntzen eskaerak enpresek egin beharko dituzte zuzenean TSM (Turismoa Sustatzeko eta Merkaturatzeko) laguntzen Aginduaren bitartez, eta Basquetour-ek 2010. urterako onartutako esperientzia-fitxetan zehaztutakoarekin lerrokatu beharko dira.

1.- “Lankidetza-erakunde” batekoa ez den udal-sozietate publiko batek zuzenean aurkez dezake bere hautagaitza, edo beste instantzia baten oniritzia behar du?

Erantzuna: 4.1 artikuluko laguntza eskatu ahal izateko, KUDEAKETA EGITURA gisa eratu behar da, Aginduan aurreikusitakoari jarraiki: “(...) baita hiru hiriburuetakook izanik turismoa sustatzen duten eta kudeaketa-eredu publiko/pribatua garatzen duten erakundeak ere”.

4.2, 4.3 eta 4.4 artikuluetako laguntzetarako, modu autonomoan eskatu beharko da, 4.5.b eta 4.5.c artikuluek kontuan hartuta, baita 4.3.a.1 artikuluko produktuak eta Esperientzia, Playground eta Top Zirkuituak (EPZ) garatzeko Basquetour-ekin sinatutako protokoloa ere

2.- ““Kudeaketa Erakundeek” eta “Kudeaketa Egiturek” nortasun juridiko propiorik ez badute, erakunde bat izendatu beharko dute beren kideen artean, betiere 3. artikuluan xedatutakoari jarraiki erakunde onuradun izateko baldintzak betez, erakunde hori solaskidea eta ordezkaria bada, laguntzak eskatzeari, kudeatzeari, kobratzeari eta hala badagokio, Agindu honetan araututako laguntzetako bat lortzearen ondoriozko erantzukizunak bere gain hartzeari dagokionez. Izendapen hori behar bezala jaso beharko da horretarako sinatutako lankidetza-dokumentuan.”

Dokumentu Standard bat egongo da egitura osoa formalki eratzeko?

Erantzuna: EZ, erakundeak, adibidez, bere izaera (ordezkaritza publikoaren eta pribatuaren %-a), xedea eta abar identifikatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko du

3.- “Kudeaketa Egiturak ez diren erakundeek nola eska ditzakete langileen kontratazio-gastuen ildoko laguntzak?

Erantzuna: Ezin dituzte eskatu 4.1 Artikuluan identifikatutako langileen gastuetarako laguntzak. 4.1 artikuluko diru-laguntza eskatu ahal izateko, Kudeaketa Egitura gisa aitortu behar dira. Horretarako, eskaera egin **aurretik:**

1.- Euskal Kostaldearen Plan Zuzentzailean, edo Done Jakue Bideari buruzko Plan Zuzentzailean edo Sailburuordetzak sustatutako beste edozein planetan Kudeaketa Egitura gisa eratzeko premia identifikatu zaio?

2.- Planaren kudeaketa-organoek Kudeaketa Egitura onartu dute?

3.- Sailburuordearen oniritzia dauka?

Bai, aldiz, 4.2 artikuluan identifikatutako langileen gastuetarako laguntzak eska ditzakezu. Horretarako, Basquetour-ekin atxikitze protokolo bat sinatu behar da nahitaez. Azken kontzeptu horrengatik (4.2), adierazitako protokoloa sinatzen duen edozein erakundek eska dezake.

4.- Euskal Kostaldeko Geoparkearen kudeaketarako Elkartea (Geogarapen) kudeaketa turistikoko egitura bat da?

Erantzuna: Bai (4.1.a.2)

4.1.B.2; 4.2.A.3 ART.: PROTOKOLOAK.

1.- Esperientzien / produktuen garapenerako atxikitze-protokolo bat dago? Baina, kultura-produktu bat edo zesta-punta bada, protokolo bat dago aparte?

Erantzuna: Bai, Basquetour-ekin atxikitze protokoloak daude produktuak garatzeko; baina, kultura-produktua oraindik garatu gabe dagoenez gero, ez da protokoloan barne hartzen.

2.- (...protokoloak...) kalitate-protokoloarekin hasi behar dugu? noiz izenpetzen dira? Basquetour-etik zitazio ofiziala jasoko dugu?

Erantzuna: Bai, eskaeraren aurretik, baina helmugaren ekimenez.

3.- Orduen kalkulua: Basquetour-ek egiten du? Helmugan ados ez baldin badaude, zuzenketak eskatzeko eskubidea dago?

Erantzuna: Ordu kopuru estandarra Basquetour-ek finkatzen du. ("Protokoloa")

4.1.C.1, 4.2.A.1 ETA 4.2.A.2 ART.: 2 DEDIKAZIO MOTA BATERAGARRI EGITEA

1.- Eskualde Garapeneko Agentzian laguntza tekniko bat dute kontratatua, zuzeneko kontratazioa eta laguntza teknikoa ekitaldi berean izateko aukera izango litzateke (adibidez, 7 hilabeteko laguntza teknikoa eta zuzeneko kontratazioko 5 hilabete)?

4.2.a.1 eta 4.2.a.2 artikuluetan deskribatutako kontzeptu guztiengatik laguntzak eska daitezke? Hau da, erakunde eskatzaileko langileengatik, horretarako kontratazio espezifikoa, eta kanpoko laguntza teknikorako?

Erantzuna: Bai, Lankidetzaren Turistikoko Erakunde gisa

2.- Lehiakortasun-teknikariari dagokionez, SICTED programaren barruan ditugun bi taldeentzako laguntza-zerbitzua dugu azpikontratatua. Hala ere, agentziako gure teknikariak laguntzaileak egiten ez dituen zereginak ere egiten ditu talde horiekin, hala nola: datuak sartzea plataforman, sentsibilizazio-jardunaldiaren antolakuntza, mahaiko diplomak baliozkotzea... Galdera honako hau da: Bi pertsona horien gastuak egotzi daitezke?

Erantzuna: ikus 4.2.a.2: EZ: pertsona bakoitzak Jardunbide Egokien talde ezberdin bat kudeatu behar du. Teknikariak espezifikoki prestatua eta kualifikatua egon behar du bildutako prozesu GUZTIAK egiteko... hau da, biak talde berekoak badira: EZ.

4.1.C.2., 4.3.A, ETA 5.4 ART.: AHOLKULARITZEN LAGUNTZA TEKNIKO PLANENTZAKO

1.- “(...) gure plan zuzentzailea aurten amaitzen da (2008-2011), eta, beraz, hurrengo 4 urteetarako eguneratuko dugu. Diru-laguntza jaso dezake 4.1.c.2 idatz-zatian edo beste batean?”

Erantzuna: Planak eguneratzeko gastuak Aginduan aipatzen dira soilik honako kasu hauetan:

- Bigarren Xedapen Iragankorrea, “eskualdeetako turismoa garatzeko planak “Euskal Turismoaren Lehiakortasun eta Berrikuntza Planaren” ardatz eta jardun-ildoetara egokitzeko aholkularitzen laguntza teknikoa” diruz laguntzeko aukera biltzen da, baina 2011. urtera mugatuta. Horren haritik, erakundearen jardun-esparrua eskualdea ez bada, ez da aplikatuko Bigarren Xedapen Iragankorra.
- 4.1.c.2 artikulua Lankidetzaren Turistikoko Erakundeentzako eta Kudeaketa Egituzentzako gastu subentzionario gisa jasotzen du honako hau: “Marketing Planean bildutako produktu-planen eta/edo plan zuzentzaileen garapenarekin lotutako plan espezifikoak lantzea (...). Produktu-plan horiek egiteko, Basquetour agentziak balioespen positiboa eman beharko die (...)”.

Hau da, produktu-planak idazteko laguntza teknikoa diruz laguntzeko aukera irekitzen da (egia esan, bakar BATENTZAT izango litzateke, 5.4 artikulua arabera), baina hori ez da gure kasua, bi kontzeptu desberdin baitira (funtzioagatik nahiz edukiagatik) Marketing Planean bildutako produktu-plan baten edo plan zuzentzaile baten helmugan operatibizatu nahi duen plan espezifiko bat *lantzea* eta helmugako plan zuzentzaile bat *eguneratzea*.

- 4.3.a artikulua izan daitezkeen erakunde eskatzaile guztiei irekitako kontzeptu subentzionario gisa adierazten du produktuen azterlan espezifikoak (plan batetik ondorioztatuak) bideragarritasun-planak eta abar egitea, eta 4.3.b.1 artikulua turismo-produktuak gara ditzakeen baliabide, azpiegitura edo ekipamenduaren diseinu, plangintza, finantziario edo kudeaketa turistikoarekin lotutako alderdiei buruzko proiektuak egiteko behar diren azterlanetara mugatzen du eremu hori. Hala ere, artikulua horrek irekitako aukerak ez dauka loturarik plan zuzentzaileak eguneratzearekin.

2.- Turismo-produktuak sortu eta garatzea: produktu-planak, plan zuzentzaileak, eta esperientziak, playgroundak, eta top zirkuituak.

Produktu-plan koherente bat aurkezteko premia baldin badago, hori egiteko lana enpresa bati esleitu behar zaio? Eskualdeko Garapen Agentzia batetik egin dezakegu? Esleipenaren kasuan, diruz lagunduta dago?

Erantzuna: Lankidetzeta Turistikoko Erakunde bihurtuta: Bai, baina Basquetour-en oniritziarekin:

4.1.c.2) “Euskadiko Turismo Marketing Planean” bildutako plan zuzentzaileen eta/edo produktu-planen garapenarekin loturiko plan espezifikoak sortzeko turismo-aholkularitzetako laguntza teknikorako gastuak. Produktu-plan horiek egiteko, Basquetour agentziak balioespen positiboa eman behar die alde zuzenetik, egokiak direla eta jatorrizko planarekiko koherentziari eusten diotela bermatzeko.”

Bestalde, ez da derrigorrezkoa produktu-plana egiteko lana enpresa bati esleitzea.

Bai, produktu-plana Eskualdeko Garapen Agentzia batetik egin daiteke.

Eta, esleipenaren kasuan, bai, subentzionagarria da.

4.1.C.3 ETA 4.4.A.2 ART.: EKIPO INFORMATIKOEN GASTUAK

1.- Eskualdeko Garapen Agentzia, Turismo Elkarte bat: “Gizarte-sareak helmugako eragileen arteko komunikazio eta hedapenerako tresna gisa ezartzearen kostua baliozkoa da?”

Erantzuna: Lankidetzeta Turistikoko Erakunde bihurtuta, bai: 4.1.c.3: “Ekipamendu informatikoa erostearekin eta erakundearen Intranetaren eta/edo Extranetaren diseinuarekin, txertatzearekin eta garapen berriekin loturiko gastuak, betiere helmugako turismo-garapenean sartutako eragileen arteko komunikazioa optimizatzen badute, baita helmugak beste helmuga, erakunde eta abarrekin duen komunikazioa ere. Erabilitako softwareak librea izan beharko du”

Bestalde, 4.4.a.2 artikuluan (komunikazio eta salmentako taktikak) jasotzen da edozein erakundek aukera izango duela “Webguneen garapen eta hobekuntzarako” laguntza eskatzeko (baita udalaren Webgunean mikrosite bat sortzeko ere)

2.- Zerbitzari bat eta ekipamendu informatikoak erosteko...? Plataforma bat sortzeko?

Erantzuna: Lankidetzeta Turistikoko Erakunde bat edo Kudeaketa Egitura bat baldin bada bai.

4.2.A.1 ART.: ORDUEN ESLEIPENA / JARDUNBIDE EGOKIEN TALDEA.

1.- *Lehiakortasunaren atalean laguntzen gaia aztertzen denean, Anfitrioien programako taldeentzako, talde bakoitzeko gehienez 20 ordu adierazten denean, ez dut ulertzen zein ordu-partidatik egingo litzatekeen, turismoko teknikariak bere lanagatik eta laguntzako teknikariak Jardunbide Egokiengatik jada diru-laguntza baldin badute, nola eskatu beharko litzateke diru-laguntza? Agian aurrekontu ezberdin batekin 3 talderentzat, nire kasuan, 60 ordu??? Kanpokoa?*

Ikus eskaera-orria eta Lurralde Ordezkaritzetan kontsultatu.

2.- *Nola zenbatzen ditugu lehiakortasun-teknikariaren dedikazio-orduak, bi urte ezberdineko denbora-ardatzean garatzen den zikloa (urria-martxoa) duen taldea denean? Egutegi errealaren arabera banantzen dugu, edo orduen zatiketa Salomoniko bat egiten dugu taldeen arabera?*

Erantzuna: ordu kopurua adierazi urteko hilabeteekiko proportzioari jarraiki.

Urte eta talde horren hilabete horietako dedidazio-orduak kalkulatu behar dira, eta kostua atera eurotan. Ezingo dira inolaz ere gainditu 400 ordu talde bakoitzeko.

Adibidez, helmugen Kalitateko Jardunbide Egokien 1.200 orduko programa bat badugu, eta 400 orduko 3 taldez osatzen bada. 2010eko urrian hasten da, eta 2011ko martxoan amaitu (6 hilabete). Urte horretako hiru hilabetei dagozkien orduak egotzi beharko lirateke bakarrik.

3.- Talde bat bi urte ezberdinetan dagoen egoera horretan, laguntza-zerbitzua SICTED programan azpikontratatzearabakitzeko badugu, ulertzen dudanez, bi faktura eskatu beharko lirateke (urte bakoitzeko bana) behar bezala justifikatu ahal izateko, OK?

Erantzuna: Zuzena. Erakunde bereko bi faktura izango lirateke, eta dedikazio-orduen kopurua urte bakoitzarekiko proportzionala izango litzateke. Bi fakturen batura ez litzateke talde bakoitzeko 400 ordu gora izango.

4.- Lehiakortasun-hitzarmenean gutxienez bi tailer edo bat ezartzen dira, zikloaren arabera. Gure kasuan, 4 tailer kalkulatu ditugu talde batentzat, beharrezkoak direla ikusi dugulako. Finantzatzen dira gehiago egiten baditugu, edo soilik minimo gisa ezartzen direnak?

Erantzuna: Aginduan talde bakoitzeko biltzen den ordu kopurua diruz laguntzen da, eta hortik gorako orduak ez.

5.- Nola kalkulatu dira Jardunbide Egokien (JE) taldeko ordu kopuruaren zenbatekoak? Zer hartzen da taldeak?

Erantzuna: Noraino:... 400 ordu talde bakoitzeko SICTED; 190 ordu IKTentzat; 63/ACC; 20/Anfitrioiak

JE TALDE 1:

- SICTED: 15-30 enpresa
- IKTak: 8-15 enpresa
- ACC: gehienez 50 enpresa
- Anfitrioiak: gutxienez 15 enpresa

Kalkuluaren xehetasuna protokoloan biltzen da.

1.- Zer da IKTen erabilera-programa?

Erantzuna: IKTen erabileran enpresen lehiakortasuna hobetzeko programa bat da.

Programa hori aurten diseinatzen ari dira, eta boluntario gisa aurkeztu ziren 2 eskualdetan gidatuko da bakarrik (Tolosaldea eta Goierri). Onartu, probatu eta baliozkotu ondoren, hurrengo urtean helmuga guztiei eskaini eta emango zaie estaldura.

Erref.: ealbizu@basquetour.net

1.- “Idatz-zati honetan biltzen dira Agindu honen 3. artikularekin lotuta egonik, beren titulartasuneko establezimendu eta zerbitzuetan kalitatearen kudeaketarako (ICTE Espainiako Turismo Kalitaterako Institutuaren Turismo-kalitateko “Q” Marka, ISO 9001:2008) eta ingurumen-kudeaketarako (ISO 14001: 2004 eta EMAS) erreferentziazko ereduak txertatuta dituztela frogatzen duten ziurtagiriak, edo hala badagokio, egiaztagiriak lehen aldiz lortzeko edota berritzeko proiektua duten eta beren jarduera egikaritzeko legeak eskatzen dizkien baldintzak betetzen dituzten erakunde onuradunak; jarduerari dagokionez, honako tipologiaren batean kokatuta egon behar du:

- **Turismo-erregulazio espezifikoak duten alojamendu-establezimenduak eta sukaldaritza-establezimenduak. (...)**

Hori erakunde pribatuentzat da, ez daude Agindu honetatik kanpo?

Erantzuna: Esate baterako kanpin baten titularrak izan daitezkeen erakunde publikoei buruz ari da.

1.- "ICTE institutuaren Turismo Kalitatearen "Q" marka lortzeko laguntza eskatzen duten erakundeek Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioaren bitartez sistemari atxikitzea eskatu behar dute aldez aurretik, betiere deialdiaren eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Erantzuna: Natalia Fernández (tel.: 94.404.73.82; e-maila: nfernandez@euskalit.net).

4.2.B0,2 ART.: JARRAIPEN IKUSKAPENAK

1.- "Jarraipen-ikuskapenak" ez daude diru-laguntzaren barruan?

Erantzuna: EZ:

"4.2.b.2) Kontzeptu subentzionagarriak:

Kanpo-aholkularien laguntza teknikoa.

Ziurtagiria, berritzea edo hala badagokio, egiaztagiria lortzeko kanpoko kontu-ikuskapenen gastuak.

Marka erabiltzeko gastuei dagozkien kopuruak, ziurtagiria edo haren berritzea lortu ondoren marka hori eman eta gero.

Ziurtagirien mantentze- edo jarraipen-faseari datxezkion gastuak ez dira kontuan hartuko, ezta arriskuen eta kontrol kritikoko puntuen azterketarako sistemaren (AKKPA/HACCP) definizioarekin eta ezarpenarekin lotutakoak ere.

4.3.A.1.A, 4.3.A.2, ETA 4.4.A.1 ART.: BISITA GIDATUAK.

1.- *Bisita gidatuak egiteko langileak kontratatzen badira, eta, aldi berean, bisitatzen diren lekuetan dagokion azalpenak emateko pertsona bat baldin badago, horiek diru-laguntzaren bat jasoko lukete? Gida-zerbitzuaren ondoriozko kostuak, subentzionagarriak dira?*

Erantzuna: Bai, bisita horiek Esperientzia, Playground eta Top Zirkuitu gisa diseinatu badira eta Basquetour-ek onartu baditu, eta erakunde eskatzailearen gastu bat baldin bada.

Horretaz gain, Sailburuordetzaren planen batean jasotzen ez diren beste jardun batzuk diruz laguntzeko aukera biltzen du 4.3.a.2 artikulua.

3.- Produktuak sortzeari dagokionez, zehazki 4.3.a.1 puntuari dagokionez, gure asmoa da mahai-lanak egitea sektorearekin helmugako playgroundean oinarritutako esperientziak zehazki sortzeko (Basquetour-ek hautatua 2012an operatiboa egoteko). Jardun horrek mahaien operatibitate-gastuak sortzen ditu: bileren kudeaketa, baliabideen bisita teknikoak, eragileen partaidetzaren dinamizazioa mahaietan... Laguntzen ildoan txerta daiteke?

Erantzuna: Ez, 5.6 artikuluan xedaturikoaren arabera. Mahaien operatibitate-gastuak: bileren kudeaketa, baliabideen bisita teknikoak, eragileen partaidetzaren dinamizazioa mahaietan, eta abar kudeaketa-gastutzat hartzen dira, eta espezifikoki horrela jasotzen da 5.6 artikuluan. Gastu horiek Lankidetzaren Turistikoko Erakundeetan eta Kudeaketa Egiturretan diruz laguntzen dira bakarrik.

4.- Era berean, produktuak sortzeari dagokionez, 4.3.a.1.a) artikuluan adierazten denez, (udal batek) Top esperientzien kudeaketan dituen gastuak honako hauek dira: bisita gidatuen kudeaketa (gidak eta taldeei laguntzeko langileak), komunikazio-plana (barnean hartuta Webgunea erreserbekin), liburuxkak eta esperientzian laguntzeko materiala (audio-gidak, mikrofonoak, eta abar). Dena batera eskatzen da, edo gastuen sustapena eta komunikazioa eta esperientzia bera banandu behar dira?

Erantzuna: Ez, dena batera da, baina kontzeptu bakoitza zehaztu behar da, dagoen fasearen arabera sailkatuta: Sortu eta garatzeko fasea edo Sustapen eta Marketing fasea (eskabidearen 26. orrialdea)

4.3.a.1 ART.: Esperientziak, Playgroundak eta Top Zirkuituak (EPZ)

1.- Espezifikoki, laguntzak eskatu baino lehen Basquetour agentziak ebaluatu eta hautatutako Esperientziak, Playgroundak eta TOP Zirkuituak (EPZ) garatzeari eta ezartzeari buruzko proiektuak. (Eskualde bat) *Negozioen edo turismo-mahaiak hautatzen duen beste produktu baten turismo-azterlan bat egin dezakegu, eta, esate baterako, arrantza egiteko irteeren esperientzia edo Basquetour-ek hautatutako beste bisita gidatu bat garatu? Zerk izango luke diru-laguntza?*

Erantzuna:

- Azterlana egitea: teorikoki bai, produktua Marketing Planean jasotzen bada (5.4 artikulua); baina ezinbestekoa da aldez aurretik Basquetour-ekin kontaktatzea MICE Planarekin lerrokatzeko
- Basquetour-ek aurretik balioetsi ez duen esperientzia gisa planteatzen bada, Basquetour-i aurkeztu beharko zaio gaitzen den epearen barruan (IX) eta Basquetour-ek onartu beharko du

Basquetour-ek onartzen badu: Giza Baliabideak + inbertsioa, jatorrian Basquetour-i aurkeztutako aurrekontuena.

4.3.A.1.B ART.: BIDEAK

1.- Bide-sarean sartu aurrekoak izanik finantzatuko diren jardunak atxikitzeko AURREprotokolo bati lotuak egongo dira? Edo denek eska dezakegu? Ez litzateke beharrezkoa izango finantziario berbera "BTT Euskadi" nitxoan?

Erantzuna:

- Ez dago aurreprotokolorik.
- Denek eska dezakete sarean sartu ahal izan baino lehen.
- "BTT Euskadi" nitxoak bere kudeaketa- eta garapen-prozesu propioa dauka.

4.3.B.1 ART.: INBERTSIOAK.

1.- Turismo-produktuak gara ditzaketen baliabideetarako, azpiegituretarako eta/edo ekipamenduetarako inbertsioen kasuan: (...)
"Jada egin daiteke, edo Produktu Plana behar dugu alde zurretik? (Negozioen Turismoko produktuarentzat dago pentsatuta hori?)"

Erantzuna: 4.3.a.1 produktuak (produktuak Sailburuordetzaren planarekin): OK, baina produktuaren garapen-planari egokitzuz (komenigarria da Basquetour-en oniritzia izatea)

- 4.3.a.2 produktuak (Sailburuordetzaren planik gabeko produktuak: City break, touring...): "(...) Kasu horietan, aurkezturiko proiektuek "Euskadiko Turismoko Marketing Planarekiko" koherentziari eusten dioten produktu-planetan identifikatuta eta zehaztuta egon behar dute".

Laburbilduta, ezinbestekoa da produktu-plan bat izatea, baina MICE programako produktu-plana Basquetour lantzen ari dela eta fase oso aurreratuan dagoela aintzat hartuta, komenigarria da Basquetour-ekin harremanetan jartzea inkoherentziak saihesteko.

2.- Erromesen aterpetxeak baliabideetarako, azpiegituretarako, eta bestelako inbertsio gisa sar daitezke?

Erantzuna: EZ, turismo-aterpetxeek ez dute araudirik.

4.3.B.2 ART.: INBERTSIOAK

"4.3.b.2. Seinaleak instalatzea biltzen duten proiektuen kasuan (...)" Ez dut ikusten 19. orrialdean jasotako koadroarekin duten baliokidetasuna. Zein epigrafetan kokatuko liriteke? Produktuen azterlan espezifikoean (plan batetik ondorioztatutak), bideragarritasun-planetan, eta abar, edo sorrera eta garapenean?) Turismo-produktuak gara ditzaketen baliabideetarako, azpiegituretarako eta/edo ekipamenduetarako inbertsioen kasuan: (...)"

Erantzuna: 4.3.a artikuluan jasotzen da

4.3 ETA 4.4 ART.: JARDUNALDIAK, MICE.

1.- Turismo-jardunaldiak laguntza hauen ildoren batean finantzatzeko aukera izango litzateke?

Erantzuna: Ez, soilik helmugako produktu baten garapen, sustapen eta merkaturatzearen barruko zati gisa biltzen badira (4.3 eta 4.4)

2.- MICE ekintzak zein ataletan biltzen dira, 4.3 edo 4.4?

Erantzuna: Bietan bil daitezke; sustapen eta marketinari buruzko zatia 4.4 atalean, eta gainerakoa, baldin badago, 4.3 atalean.

4.4 ART.: SUSTAPENA ETA MARKETINA, LIBURUXKAK

1.- Udallerriak: Liburuxkak egitearen gastuak barruan egongo lirateke? Eta, liburuxkentzako poltsak sartzen dira?

Erantzuna: bai, 4.3 atalean bildutako produktu baten (ez baldin badago Sailburuordetzaren materialik (4.4.b)) edo helmugako produktu baten (aukera hori irekiagoa dago) garapen, sustapen eta merkaturatzearen barruko zati gisa biltzen bada

4.4.b) Adierazitako guztiaz gain, honako hauek ere kontuan hartuko dira:

(...) Turismo-produktuak sustatzeko beharrezko hedapen-material turistikoaren euskarria informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKI) bitartekoa izango da lehentasunez, eta diruz lagundu ahal izango da baldin eta Sailburuordetzaren materialak alderdi horiek betetzen ez baditu. Sailburuordetzak kasuan kasu egindako eta eskainitako jarraibideen arabera egin beharko da material hori, formatuari, estetikari, markei eta abarri dagokienez.

Horri dagokionez, adierazi behar da oraindik ez dagoela Sailburuordetzaren jarraibiderik.

2.- Eskualde Garapeneko Agentzia: Produktu enogastronomikoari buruz egin ditugun kartelak (pintxo bonoa) sartzen dira?

Erantzuna: BAI, hasiera batean subentzionagarria izango litzateke (produktua 4.3 artikularekin bat baldin badator), baina aurreko erantzuna kontuan hartuta

4.4 ART.: AZOKETARA JOATEA, PUBLIZITATE TXERTATZEAK

1.- Udalerriak: Komunikabideen eta sustapen-ekintzen gastuak sartuko lirateke? Azoketara joatea?

Erantzuna: Komunikabideen gastuak sartuko lirateke, 4.4.a.1 artikularen arabera

Sustapen-ekintzen gastuei dagokienez, Aginduan jasotzen dena kontuan hartu behar da:

“4.4.b) Sailburuordetzak antolatutako edo koordinatutako marketineko eta turismo-sustapeneko jardunetan Sailburuordetzarekin lankidetzan hartu beharko da parte. (...)

Sailburuordetzak parte hartzen ez duen marketineko eta turismo-sustapeneko jardunetara joan ahal izateko, Sailburuordetzaren oniritzia ezinbestekoa izango da, horregatik diru-laguntza jaso nahi bada. (...)

Promozio-opariengatiko gastuak diru-laguntzatik kanpo geratuko dira.”

Arestian adierazitako oniritzia lortzeko, honako helbide elektroniko honetan eskatu beharko da: secretaria.turismo@ej-gv.es

4.4.A.2 ART.: SUSTAPENA ETA MARKETINA, OPIS, PANELAK

1.- Udalerriak: Publizitatea OPISen (udalerriko turismo-baliabideak)? Ez dut ikusten 4.4 artikulua erabiltzen garapen-puntuetan.

Erantzuna: “4.4.a.1) 4.3 artikuluan bildutako proiektuen sustapenerako eta marketinerako jardunak, baita helmugan sustapenerako eta marketinerako jardunak ere.”

“4.4.a.2) Marketing Planean aipatutako komunikazio- eta salmenta-taktikak, espezifikoki, honako hauek:

(...) Informazio-sistema berritzaileak garatzea eta txertatzea dakartenak, esate baterako, bisitaldiak egitea faboratzen duten eta/edo turismo-esperientzia optimizatzen duten gida elektronikoak edota gailu mugikorak”

17.8: “Sustapen- eta marketin-euskarriek, edozein izanik ere horien formatua eta hedatzeko erabiltzeko bitartekoa, indarrean dagoen marka turistikoa jarri beharko dute beren eskuliburuan bildutako aplikazioen arabera. (...) beren Webgunean banner bat: www.euskaditurismo.net”

4.4.A.3 ART.: EKITALDIAK ANTOLATZEA

1.- Bisitari mordoa jasotzen duten nazioarteko mendi-probak sartzen dira...?

Erantzuna: BAI, baina...

“4.4.a.3) Turismo-proiektzio handikoak izanik, Euskadiren turismo-kokapena finkatzen eta/edo gualdien kopurua areagotzen laguntzen duten ekitaldi bereziak antolatzea, betiere honako hauetan oinarrituta badaude:

Euskadin gauzatutako jardunak, ekitaldira joateko eskubidearekin batera, gutxienez gualdi baterako alojamentua eta beste hainbat produktu eskaintzen dituztenean.”

Nolanahi ere, horren izaera, berezitasuna eta turismo-proiektzio handia justifikatu beharko dute.

1.- “(...) Orain beharrezkoa izango litzateke proiektuen onespén horretan Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundia ordezkaturak egotea? Gainerako mahaietan eskaturak beharrezko proiektuak onarturak egon behar dute?

Erantzuna: 4.5: Lankidetzak Turistikoko Erakundeek “turismo-mahaiak” biltzen dituzte, aldi berean Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzari ezinbestean txertaturak. Foru Aldundia “Erakunde Mahaiak” egongo litzateke, eta mahai horrek onarturako lituzke Turismo Mahaiak aurkeztutako proiektuak. Ikus koordinazio-prozesua (4.5)

2.- Lankidetzak Turistikoko Erakunde gisa eratutako Eskualde Garapeneko Agentzia batetik: Laguntzen eskaerak eskualde mailan egin behar dira, Lankidetzak Turistikoko Erakundearen bitartez: edo aukerak dago Udalek laguntzak zuzenean eskatzeko, proiektuak soilik udalerrian oinarritzen direnak?

Erantzuna: Bi aukerak daude, baina langileen gastuak soilik Lankidetzak Turistikoko Erakundeentzat. Udalak 4.2, 4.3 eta 4.4 artikuluetako laguntzak eska ditzakete.

3.- Lankidetzak Turistikoko Erakunde bateko udalerriek aurkeztutako proiektuen oniritziari dagokionez, udal turismo-mahaiaren oniritzia edo Lankidetzak Turistikoko Erakundearena?

Erantzuna: Biak:

■ 1.:

10.5.- (...) “Jardunak onartzeko garaian, erakunde eskatzailearen organo eskudunak laguntza-programa honen deialdian aurkeztzen diren baldintzen arabera egitea erabaki duela dioen deklarazioa, baita diruz lagundu ezin dena finantzatzeko konpromisoa onartzen duela ere.”

■ 2.: Lankidetzak Turistikoko Erakundearen oniritzia:

4.5.b) Tokiko erakunde publikoek eta Lankidetza Erakundeen barruko irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek aurkezturiko proiektuak.

“Lankidetza Erakundeen” oniritzia izan beharko dute

4.- Lankidetza Turistikoko Erakunderik gabeko udalerriek aurkeztutako proiektuen oniritzia?

Erantzuna: Eskualdeko erakundearena, halakorik badago, eta, bestela, Basquetour agentziarena.

5.- Lankidetza Turistikoko Erakunde batean sartua ez dagoen udalerrin baten kasuan, atxikitze protokolo bat formalizatu behar da nahitaez Basquetour-ek hautatutako playground bat garatzeko?

Erantzuna: Ez, Esperientzia, Playground eta Top Zirkuituen garapena ez da protokolo bidez egiten. Basquetour-ek diseinatutako hautaketa- eta ebaluazio-prozedura espezifiko bat dago, protokoloa ez dena.

6 “X elkarteak, egingo dituen proiektuen diru-laguntza eskatzeko, eskualdeko lankidetza-erakundeen baimen-txostenak aurkeztu behar ditu? (hainbat eskualdetako udalerriak biltzen ditu) Orain arte ez du Dinamizazioagatik diru-laguntzarik eskatu, baina bai Sustapenerako”.

Erantzuna:

“4.5.b) Tokiko erakunde publikoek eta “Lankidetza Erakundeen” barruko irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek aurkezturiko proiektuak.

– “Lankidetza Erakundeen” oniritzia izan beharko dute.

4.5.c) Dagozkien turismo-mahaien barruan ez dauden irabazi-asmorik gabeko bestelako turismo-erakundeek eta -elkarrekin aurkeztutako proiektuak:

– “Lankidetza Erakunderen” bat badago, erakunde horri buruzko txosten bat lortu beharko dute, aipatutako proiektuak horietan garatutako turismo-estrategien osagarria zein heinetan den edo/eta horietara zein heinetan egokituta dagoen adieraziz. Txostenak derrigorrezkoak izango dira, baina ez lotesleak. Horrelako

erakunderik ez badago, eskualdeko erakunde kudeatzailearen edo kudeatzaileen horrelako txosten bat lortu beharko dute, hala badagokio.”

5.1 ART.: 1/N ESKABIDEAK

1.- Aginduan araututako laguntza mota bakoitzeko eskabide bat, edo eskabide bakar bat edozein laguntza-motaren kargura?

Erantzuna: Eskabide 1 kontzeptu guztiekin (lehen ziurtagirien kasuan izan ezik)

5.1.- Eskabide bakar bat onartuko da erakunde eskatzaile bakoitzeko, 4.2.b) artikuluan identifikatutako erreferentziazko kudeaketa-ereduei jarraiki kalitatearen eta/edo ingurumenaren kudeaketaren ziurtagiria lehen aldiz lortzeko laguntzak eskatzearen kasuan izan ezik; kasu horretan, xede horretarako espezifikoa den beste eskabide bat onartuko da.

5.2 ART.: BURUTZEKO EPEA

“Nik ulertzen dudanez, diru-laguntzak eskatzen diren jardun guztiak 2011ko abenduaren 31 baino lehen burutu behar dira?”

Erantzuna: Bai langileen kontratazioetan, lehen ziurtagirietan eta 4.4 artikuluko laguntzan

“5.2.- Deialdi-ebazpena argitaratzen den ekitaldiaren barruan eta emakida-ebazpenaren hurrengo ekitaldiaren uztailaren 1a baino lehen egindako jardunek jasoko dute diru-laguntza, ondoren zehaztutako kasuetan izan ezik:

5.2.a) Langileen kontratazioak (...) ziurtagiriak lehen aldiz eskuratzea” (...); eta sustapen- eta marketin-jardunak (...)

5.6 ART.: MANTENTZE LANAK

1.- Erromesen Udal Aterpetxetik eratorritako gastuak subentzionagarriak dira? Garbiketa-gastuak, erabili ondoren botatzeko materiala...

Erantzuna: Erromesen Udal Aterpetxea ez da establezimendu subentzionagarria, turismo-araudirik ez duelako.

6. ART.: DIRU-LAGUNTZAREN MUGAK – BATERAGARRITASUNA

1.- ETL Agindu berriaren 6. artikularen muga kuantitatiboak Agindu honetan aurreikusitako laguntzetarako dira bakarrik, edo indarrean jarraitzen duten gainerako Arauetatik jaso daitezkeen diru-laguntzetarako ere badira?

Erantzuna: 8.1.– Agindu honetan ezarritako laguntzak beste entitate edo erakunde batzuek emandako edozein laguntzarekin bateragarriak izango dira, salbu eta kontzeptu berdinagatik Turismo Zuzendaritzak kudeatutako hitzarmen edo beste laguntza-agindu batzuen babesean emandakoak.

2.- Ulertzen dudanez, Aginduaren arabera gutxieneko ehunekoa % 50 izango da, baina aurrekonturik ez badago eta helmugen sustapenaren lehentasuna produktuena baino txikiagoa denez gero, baliteke aurrekontuarekin ez estaltzea.

Erantzuna: Produktuen eta helmugen sustapen-gastuetarako diru-laguntzaren %-a berdina da: % 50 eta % 80 Esperientzia, Playground eta Top Zirkuituentzat; beste gauza bat da Aginduan jasotako gastu subentzionagarriaren gehieneko zenbatekoa, marketinerako desberdina erakunde eskatzailearen tokiko eremuaren arabera.

Bestalde, teoriarik, produktuak sortu, garatu eta/edo sustatzeko eta marketineko jardunak lehentasuna dute helmugakoen gainetik, hain zuzen ere 7.1.4 artikulua bosgarren atalean irizpide bat adierazten baitu espezifikoki produktuei aplikatzen zaiena, eta ez helmugei.

7. ART.: ESPERIENTZIA, PLAYGROUND ETA TOP ZIRKUITUEN (EPZ) LEHENTASUNA

1.- Produktu-planak, plan zuzentzaileak, eta esperientziak, playgroundak, eta top zirkuituak. (...) Esperientziek, playgroundek eta

top zirkuituek garrantzi-maila berbera dute garatzeko eta ezartzeko laguntzak jasotzeari dagokionez?

Erantzuna: Esperientziek, Playgroundek eta Top Zirkuituek 2. mailako lehentasuna dute, 4.1 eta 4.2 laguntzen atzetik, eta gainerako produktuen eta marketinaren gainetik. Horretaz gain, diru-laguntzaren ehunekoa % 50etik % 80ra igo da

7.1.4.h ART.: LEHENTASUNA, SAREAK

1.- “Agenda 21” edo antzeko sareetan parte hartzeagatik puntuak lortzen dira?

Erantzuna: Bai, ekintzaren eta Agenda 21en arteko harremana egiaztatzen bada

7.1.4.A ART.: UDALERRIAREN / KUADRILAREN LEHENTASUNA

1.- Kuadrilak eta eskualde bereko Udal batek diru-laguntza eskatzen badute, biek lor dezakete? Batek lehentasuna dauka bestearen gainean?

Erantzuna: Kuadrila: puntuazio handiagoa

11. art.

Protokoloentzat legezko ordezkariaren sinadura garaiz izateko ezintasuna.

Erantzuna: Ongi dakizuenez, laguntzen eskaera izapidetzeko, ezinbestekoa da eskaera legezko ordezkariaren sinadurarekin egitea. Eskabidean daturen bat falta bada, 10 eguneko epean konpontzeko eskatuko da, eta epea amaitzen denean konpondu ez bada, eskatzaileak eskaera atzera bota duela ulertuko da

15.1 art.

Erakunde onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazioan, faktura elektronikoen atalean, honako hau aipatzen da: gastuen/inbertsioen

egiaztapena faktura elektronikoen bidez ere egin ahal izango da, betiere zerga-arloan onartuak izateko betekizunak betetzen badituzte. Zeintzuk dira betebeharrak?

Erantzuna: Faktura elektronikoari dagokionez, Foru-araudiak, zehazki, honako hau adierazten du Bizkaiarako:

-57/2004 Foru Dekretua, apirilaren 6koa, fakturatzeko betebeharrak arautzen dituena (apirilaren 27ko BAO)

-23/2005 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen apirilaren 6ko 57/2004 FD aldatzen duena (martxoaren 15eko 51. BAO)

Gipuzkoaren eta Arabaren kasuan, ikus honako lotura honen 6. diapositiban agertzen den araudia:

http://www.izenpe.com/s15-12010/es/contenidos/evento/evento_firma_electronica_01/es_evento_3/adjuntos/Albalia.pdf

Horretaz gain, lotura horretan ikuspegi sintetizatu bat ematen da, esate baterako faktura batek izan behar dituen nahitaezko datuena (11. diapositiba)

17.4. ART.: BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIKO ALDIBEREKOTASUNA

1.- Nola koordinatuko dira laguntza horiek beste erakunde batzuek ematen dituzten laguntzekin...?

Erantzuna: 17.4 (Erakunde onuradunen betebeharrak)

“Helburu berberarekin edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk emandako diru-laguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratu dituela jakinaraztea diru-laguntza eman duen organoari. Jakinarazpen hori adierazitakoaren berri izan bezain laster egin beharko da, eta nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.”

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

1.- Turismoa dinamizatzeko plana 2012an amaitzen da. Laguntza horietan beste plan berri bat egitea barnean har genezake, kontuan hartuta aurretiaz egin beharko litzatekeela 2012an indarrean jartzeko eta ez dakigula ildo hori etorkizuneko laguntzetan mantenduko den?

Erantzuna: Soilik 2011n eta kasu jakin batzuetan:

2. Xedapen Iragakorra: "2011. urteko deialdiari dagokionez, honako hau onartuko da diruz laguntzeko moduko kontzeptu gisa: turismo-arloko aholkularitzen laguntza teknikoa eskualdeetako turismoa garatzeko planak Euskal Turismoaren Lehiakortasun eta Berrikuntza Planaren (2010-2013) ardatz eta jardun-ildoetara egokitze"

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

1.- Turismoaren aldeko apustua egiten ari den eskualdea bada, Playground bat eta abar izan aurretik, agian inbertsioak egin beharko ditu turismo-eskaintza baterako elementuetan? Inbertsiorako diru-laguntzak eska daitezke?

Erantzuna: Soilik 3. xedapen iragakorrean adierazitako kasuetan:

3. Xedapen Iragakorra: "3.- Faseka gauzatzen ari diren eta 2010eko ekitaldian laguntza jaso zuten inbertsio-proiektuekin jarraitzeko 2011ko ekitaldian aurkezten diren diru-laguntzen eskabideek, Agindu hau indargabetu arte turismoa dinamizatzeko planetarako laguntzei buruz indarrean dauden aginduei helduz, diru-laguntza jaso ahal izango dute proiektua onartzeko aintzat hartu ziren jatorrizko baldintzak betetzen badira. Kasu horietan, Agindu honen ondorioetarako, tratamendua "Euskadiko Turismo Marketing Planean" aipatzen diren eta "Sailburuordetzak" horiei buruzko planik idatzi ez duen lehentasunezko produktu turistikoak sortzeko, garatzeko, sustatzeko eta marketina egiteko jardunen tratamenduaren parekoa izango da."

Soilik Playgroundak sortu eta garatzekoak, eta ez horien aurrekoak. Nolanahi ere, Hirugarren Xedapen Iragakorra kontuan hartuko da.